

Beharrezkoak izango diren baliabideak 4 taldetan banatuko ditugu.

Hasteko, baliabide fisikoak aipatuko ditugu. Hasiera batean, denda fisikoa erabiliko dugu salmentak egiteko. Tailerrik ez dugu izango, etxean jostuko ditugulako produktuak, tailerraren kostua oso altua delako hasieratik ordaintzeko. Enpresaren errentagarritasuna eta salmentak hazten diren heinean, tailerra alokatu behar dugun hala ez pentsatuko dugu. Biltegi txiki bat izango dugu dendaren atzekaldean materialak gorde ahal izateko. Hemen, makina berezi baten beharra badaukagu, hemen kokatuko dugu. Horretaz aparte, edozein denda behar dituen ibilgetu materialak, hau da, ordenagailua, datafonia eta kutxazain erregistratzailea.

Erabili beharreko baliabide intelektualak hauek izango dira; gutako batek jostun lanak ditunenez, katuentzako jantziak egingo ditu. Jantziak diseinatzeko sormena eta hauek josteko eskulana beharrezkoak izango dira. Ikasteko eta berritzeko gogoia ere badugu.

Hasiera batean, lau kideok hasiko dugu enpresa. Egin beharreko jarduerak gure kabuz egingo ditugu. Beharrezkoa izatekotan, ziur aski enpresa hazten denengan, langileren bat kontratatu behar izango dugu.

Hainbat bide izango ditugu finantziazioa lortzeko. Lehena eta garrantzitsuena gure aurrezkiak izango dira. Honetaz aparte, estatuaren diru laguntzak eskuratzen saiatuko gara. Honekin nahikoa ez bada, maileguren bat eskatuko dugu. Hau txikia izateko asmoa daukagu, horrela epe laburrean ordaintzeko gai izango gara.